


**BIZITEGI ERAIKINA**  
D MAILA

**RAMON MARIA LILI 6**



**Egilea eta data: Francisco Urcola; 1920**

**Deskribapena**

Kantoiko eraikina, jatorriz erdisotoa, bastardea eta lau goi oin dituen, gehi fatxada planoan dagoen jasodura bat (jatorrizko bosgarren oin mantsardatua ordeztzen duena), eta beste bi jasodura altuera bikoitzeko mantsarda handi moduan. Horixe da 2003-2007 urteetan egindako lanen emaitza. Harlanduzko fatxada, jatorriz hormigoizko begiratokiak ditu alakan eta Ramon Maria Lili pasealekuko fatxadaren ardatz zentralean. Planoetan helbide bikoitza du (Agirre Miramon 2 eta R.M Lili 6). Gaur egun R. M. Lili 6an du ataria.

**Babes erregimena**

- 1.- Erregimen orokorra.  
Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.  
Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baeen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira.
- 2.- Berariazko erregimena.
  - A. Babesetik kanpo utzitako elementuak edo zatiak: jasodurak (5., 6. eta 7. goi oinak).
  - B.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko elementuak.
  - C.- Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk: ez, erregimen orokor hori arautzeko baldintzak betetzeari lotutakoak izan ezik, hala badagokio.